

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZUNDAKETA-EKIPAMENDUEN MANTENTZE-LANAK EGITEA ETA ZUNDAKETA AMAITZEA	Iraupena	80
		Baldintzatua	
Kodea	UF0758		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zundaketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zundaketak egitea	Iraupena	260
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioa zundaketen zulaketan (Zeharkakoa).	Iraupena	50
	Zundaketen zulaketa		80
	Zundaketen eta eragiketa osagarrien egonkortzea		50

#### A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0415\_2 ZUNDAKETAK-EGITEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, zulaketa-ekipamenduen mantentze-lanak egiteari eta zundaketa amaitzeari dagokienez

#### B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zundaketa-ekipamenduko elementuak desmuntatzeko eta berreskuratzeko jarraitu beharreko prozesua aplikatzea, elementu horiek aztertuz eta egokituz beste leku batera segurtasunez eta eraginkortasunez eramateko.

E1.1 Zulaketa amaitu ostean zulaketa-zutabea berreskuratzeko prozesua deskribatzea, zulaketaren zati bakoitza identifikatuz.

E1.2 Ekipamendu osoa desmuntatzeko eta beste leku batera edo eragiketa-basera garraiatzeko prestatzeko jarraitu beharreko prozesua zerrendatzea.

E1.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Zulaketa-zutabea desmuntatzea, tutuak, egonkorgailuak, lanabesak eta zutabearen gainerako elementuak aztertuz eta ziurtatuz, egingo diren beste eragiketa batzuetarako balio ez dutenak baztertuz eta gainerako guztia garbituz eta txukun bilduz.
- Aire-, ur- edo lohi-zirkuituak deskonektatzea, mahukak, ponpak, konpresoreak, zikloiak, baheak eta gainerako elementuak garbituz, aztertuz eta txukun jasoz.
- Erabilitako makina-motaren arabera, dorrea desmuntatzea edo botatzea, bere elementu guztiak aztertuz eta bermatuz segurtasun-baldintzetan eta aurrerago erabili ahal izateko baldintzetan garraiatzeko.
- Zundaketa-prozesu osoan erabilitako erreminta eta makina osagarri txiki guztiak biltzea, aztertzea, garbitzea eta zerrendan sartzea.
- Zundaketaren ahoa behar bezala egokitzea behar izanez gero aurrerago erabili ahal izateko, edo behin betiko ixteko bertan behera uzten bada.

A2: Zundaketa-ekipamenduaren eta material osagarriaren mantentze-lanak egiteko ezarritako prozedurak aplikatzea, funtzionamendu-egoera egokian geratzen dela bermatzeko.

E1.1 Modu egokian interpretatzea mantentze-lanak egiteko eta konpontzeko eskuliburuaren argibideak eta mantentze-lanak egiteari buruzko barne-araudia.

E1.2 Zundaketa-ekipamenduak eta ekipamendu osagarriak behar duen mantentze-lana ezartzea: prebentziokoa edo ordezkatzekoa; argibideetan eta konponketa-liburuetan eska daitezkeen parametroen barruan egin daitezkeen konponketak identifikatuz.

E1.3 Ekipamenduen mantentze-lanak egiteko eskatzen diren erremintak eta ordezeko piezak hautatzea.

E1.4 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Zundaketa-makinaren elementu mekanikoen, hidraulikoen, pneumatikoen eta elektrikoen lehen mailako mantentze-lanak egitea.
- Beste horrenbeste egin behar da ponparen, konpresorearen eta sorgailu elektrikoaren elementuekin.
- Dagokion fitxan edo liburuan erregistratzea mantentze-lanak egiteko edo konpontzeko eragiketarako.

A3: Ezarritako prozedurak aplikatzea ur-putzuen amaierarako proiektuaren definizioaren arabera.

E1.1 Estaldura-hodiak sartzeko prozesua deskribatzea, tartek behar bezala elkartuz eta hodian azken antolamendua putzuaren diseinuan aurreikusitakoa dela bermatuz.

E1.2 Legar-iragazkia osatzeko erabilzen diren legar-motak azaltzea, zeharkatutako lurraren ezaugarrien arabera.

E1.3 Putzuaren garapena egiteko behar diren zereginak zerrendatzea.

A4: Zehaztutako prozedurak aplikatzea proiektuaren definizioaren arabera lan-eremua uzteko eta leheneratzeko.

EI4.1 Zundaketa-gunea garbitzeko eta lohi-istila berreskuratzeko prozesua deskribatzea.

EI4.2 Zundaketaren ixte-sistemak deskribatzea ezarritako prozedurei jarraikiz, ondoren erabiltzeko dagoen aukeraren arabera.

EI4.3 Ingurumen-arloko araudia interpretatzea hondakinak baztertzeari dagokionez.

### **Edukiak:**

#### **1. Zulaketa-ekipamenduen elementuak desmuntatzeko eta berreskuratzeko prozedurak.**

- Zulaketa-zutabea.
- Tutu-hodiak.
- Zulaketa-lanabesak.
- Lanabesen eta erreminten antolamendua.

#### **2. Zundaketa egin den lan-eremuaren leheneratzea.**

- Zundaketa-eremuaren garbiketa.
- Zundaketaren ixte-motak: behin betiko ixteak eta aldi baterako ixteak, zundaketaren gaineko neurketak eta neurketa geofisikoak, geoteknikoak edo hidrogeologikoak egitea ahalbidetzen dutenak.
- Lohi-istilaren indusketaren berreskuratzea.
- Hondakinak baztertzea ingurumen-arloko araudiari jarraikiz.

#### **3. Zundaketa-ekipamenduen eta material osagarriaren mantentze-lanak egitea.**

- Ekipamenduen prebentziozko eta ordezeko mantentze-lanak egitea. Motorren, ponpen eta zirkuitu hidraulikoen lehen mailako mantentze-lanak egiteko eragiketa nagusiak. Mantentze-lanetarako eskuliburuak. Matxura ohikoenak eta horien konponketa. Konponketa-protokoloa matxuren kasuan.
- Higaduren kontrola.
- Zirkuitu elektrikoak, hidraulikoak eta pneumatikoak mantentze-lanak egitea.
- Makinen eta lanabesen elementu eta organo mekanikoen mantentze-lanak egitea.
- Elementu eta osagai oleohidraulikoen mantentze-lanak egitea.
- Elementu eta osagai pneumatikoen mantentze-lanak egitea.
- Ponpa hidraulikoen eta konpresoreen mantentze-lanak egitea.
- Iragazkien eta bestelako elementuen mantentze-lanak egitea.
- Erregaien kontsumoaren kontrola.
- Olio- eta koipe-mailaren kontrola.

#### **4. Zundaketak egiteko erreminten eta ekipamenduen azterketa eta konponketa.**

- Haga-multzoen, hodian eta zulaketa-lanabesen kontserbazioa.
- Arroak eta zati sentikorak babestea.
- Erreminten eta ekipamenduen biltegiatzea.

### **C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0757 Zundaketen eta eragiketa osagarrien egonkortzea

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zundaketak